

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 23a

131. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko zuzenketa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko zuzenketa (5. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak onetsitako irizpena (7. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebaluazio bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean norberak hautemandako osasunaren narriadurari eta pandemia-egoeraren ondorioz ondoez psikologikoaren eta emozionalaren sintomak agertzeari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunitate ekintza prebentiboaren lana sustatu eta aldeztu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeinu-hizkuntzak aitor ditzan eta haien erabilera berma dezan oinarritzko eskubide gisa. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren sektoreko jarduerak susta ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diseina ditzan gizon helduei zuzendutako sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak, indarkeria matxistei buruzkoak. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes-material egoki eta kalitatezkoa helaraz diezaien pertsona kalteberei. Osoko Bilkurak ezetsi du (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Ogasuneko bi kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile lanpostu betetzeko bi pertsona kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzak emateko 2020ko deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, irakaskuntzako kontingentzia plana aldatzea justifikatzen duten irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Radar Covid aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “Delta 50” deitutako eremuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.**OSOKO ZUZENKETA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2020ko azaroaren 12ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

OSOKO ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa, hura Nafarroako Gobernuari itzultzekoa.

Zioak: 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektua ez da gauza gure erregioaren beharrian ekonomiko eta sozialik premiazkoenei erantzuteko, eta ez ditu gidalerrotzat koordinatu batzuk hartzen, zeinek nafar ekonomia eraldatu eta enplegu-sorkuntzan eta pertsonen autonomia oinarrituta dagoen egiazko oparotasun jasagarriko eredu baterantz bideratuko bailukete. Bi helburuen arteko oreka bat bilatzen duten aurrekontu batzuk izan beharrean, aurrekontu hauek ez diote ez batari eta ez besteari heltzen: inonezean gelditzen dira.

Proiektua, oro har eta gastuari gagozkiola, ozta-ozta aldentzen da 2020rako onetsitako aurrekontuetatik. Orduan, Nafarroako Gobernuak % 2,2ko hazkunde aurreikusten zuen; nabaria da, alabaina, gertaturikoek birrindu egin dutela aurreikuspen hori. Pairatzen ari garen osasun-krisiak izugarriko heriotza-kopurua eragin du, eta ekarri duen hondamendi sozial eta ekonomikoa parerik ez duen BPG beherakada batean gauzatu da aur-

ten (% 10ekoa, zenbait kalkuluren arabera). Jende askoren bizimodua suntsitu ez ezik, horri eusten dion ekoizpen-ehundurari kalte sakona egin zaio eta, halatan, ilundu egin dira etorkizunari begirako aurreikuspenak, oraindik ere ziurgabetasun handian murgilduak. Aurrekontu hauek abagunea ziren gure Gobernuak aitzindaritza eraginkorra erakutsi zezan dinamikotasun galduaren berreskurapenean. Baina, tamalez, aurkeztu den proiektuak aldendu egiten gaitu abagune horri heltzetik.

Proiektua aurkeztu da halako baikortasun zuhur bat hedatu den une batean, COVID-19rako txerto eraginkor bat izan eta ustez aurki eskuragarri egoteari buruzko oraintsuko albisteengatik. Zer esanik ez, aurrerapauso handia da. Baina kontua da ez dela berehalako emaitzak eskuratuko dizkigun konponbide magiko bat. Bide luzea gelditzen zaigu 2021ean eginkizun. Pandemiaren bigarren oldearen erdian gaude, eta zorionez hainbeste denboraren ondoren kutsatzeen bilakaera hobetze-bidean dagoen arren, datuek hainbat hilabetez Europako erregiorik okerrenetako bat izan garela erakusten dute, eta osasungintza-sistemaren gaineko presioa kezkagarria da oraindik ere. Alabaina, Osasun Departamentura bideraturiko aurrekontua, pandemian zeharreko gastu erantsia kontuan hartuta, % 1,4 murriztu da 2021erako aurreikusitakoaren aldean. Horrez gain, eta zehazkiago, aurrekontu hauek ez dute behar adinako baliabiderik paratzen Oinarrizko Osasun-laguntza herritarrek eskatzen dituzten mailetaraino berriro iritsi eta egungo gizartearen beharretara egokituriko eredu berri baterantz bilaka dadin. Horrela, Oinarrizko Osasun-laguntzak portzentaje-puntu erdi eskas batean baino ez du handitzen departamentuan duen pisua: % 14,5etik –2020ko urriaren 31ko betetze-datuen arabera– aurrekontu-proiektu aurkeztuko % 15era.

Hori horrela, BPGaren hezkundeari dagokionez espero baino hobea izan den hirugarren hiru-hilekoaren ondoren, inpaktu ekonomikoa jadanik bortizkiago sentitzen hasiak gara, bigarren oldeak

eragin duen geldialdi berria eta gero. Ildo horretan, zenbait erakunde, hala nola Espainiako Bankua, Funcas, Europako Batzordea eta Nazioarteko Diru Funtsa, ekonomiaren hazkundeari buruzko aurreikuspenak ilunduz joan dira, hala 2020rakoak nola datorren urterakoak.

Aurrekontuek, zerbitzu publikoen hornidura gaur ziurtatu eta pandemiaren eraginak jasaten ari direnei laguntzeaz gain, bultzada eman ahal izan behar diete egiturazko eraldaketei, berrikuntzan eta aurre-rapen teknologikoan oinarrituriko ekoizpen-eredu moderno bat lortzeko, epe ertain eta luzeko hazkunde jasangarria bermatzeko modua den aldetik. Horren mozkinak zuzenean iritsiko dira herritarrengana, bai eta etorkizuneko aurrekontuen bitartez ere.

Aurrekontuko zenbaki handiei erreparatzea tentazio handia da. Baina aurrekontu publiko batzuen anbizioa ez da irizpide horrekin soilik neurtu behar. Eta, are gutxiago, engainuzkoa baldin bada. Behin eta berriro esan izan da proiektu honek % 6,5eko gastu-gorakada erakusten duela aurtengorako onetsitako aurrekontuaren aldean. Baina, egiazki, Nafarroako Gobernuak aurtengo urriaren 31ra arte sartu duen gastu berri guztiaren ondoren, gorakada hori % 1,4an geratzen da.

Zenbaki horiek ezin dute ezkutatu aurrekontu hauek ez dietela erantzuten Nafarroak, gure herriaren gainerakoak bezalaxe, 2021ean aurre egin beharreko baldintza ekonomiko eta sozial latzei. Ziurgabetasun handia dago pandemiak datozen hilabeteetan izanen duen bilakaerari buruz. Baina badakigu gero eta argiago ikusiko ditugula haren efektu ekonomiko eta sozial gogorrak, enpresei, langileei eta familiei sostengua emateko abiarazitako neurri berezietako batzuk agortzen joan ahala. Horrela, 2020ko maiatzaren erdialdean langileak Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteetatik ateratzeko balio izan zuten lehen Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteen mantentze-klausula azaroaren 15ean mugae-guneratu zen, urrunagorik gabe. Daukagun arrisku larri bat da langile batzuk ia zuzenean eta langabezia-egoera utzi gabe pasatzea Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientetik Enplegu Erregulazioko Espedientera. Gertakari horien ondorioei aurrea hartu beharko litzaieke betebete helduz enplegu- eta inbertsio-planak egiteari, kolpea bigundu eta hazkundeari bultzada emateko modua emanen luketenak, bai eta behartsuenen premiei erantzunez, litekeena delako krisiak are gehiago okertu izana haiek abiapuntutzat zeuzkaten baldintzak.

Suspertu Planak aurrekontu hauetan duen pisuak eta egiturak argiro erakusten dituzte aurre-

kontu hauen mugak. Plan hori helburu argi batekin taxutu zen, 2020ko abuztuan haren aurkezpenak esaten zuen bezala. Planak asmotan hartu zuen egungo krisitik sasoitsu irteteko tresna publiko eta pribatu guztiak bultzatzea eta koordinatzea. Aldarrikatzen zuen beharrezkoa zela oinarri berri batzuk ezartzea hazkunde, berrikuntza, berdintasun eta ekitaterako, berdintasunik eza gertatzearen arrisku handiagoari aurre egin eta inor ere atzean ez uzteko.

Helburu horiek iradokitzen zuten okasioa galtzera goaz. 507 milioi euroko zuzkidurarekin aurkeztu den plan bati buruz ari gara. Baina kantitate horretatik 432 milioi, hau da, % 85, jadanik jasota zeuden Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorretan. Suspertu Planeko 30 milioiek soilik (% 6) dakartzate zinezko berritasunak, eta ezin da jo berritasun horiek guztiek zerikusia dutenik, zerikusi argia behintzat, erregioarentzako benetako suspertze-ahalmen batekin.

Nafarroa ekonomia lehiakor bat bihurtzeko asmoz azpiegitura handien aldeko apusturik ere ez du proiektu horrek egiten. Bai abiadura handiko trenaren eraikuntza bai Nafarroako Ubidearen bigarren fasearena ere, Nafarroako ekonomiarentzat orainari eta geroari uztarturiko azpiegitura-proiektuak dira; bi kasuetan, itzulera mardula daukaten inbertsio publikoak. Aurrekontu-partida horiek biderkapen-efektu nabarmena daukate enpleguan eta Barne Produktu Gordinean, eta hori bereziki beharrezkoa da pandemiaren ondorioz bizi ditugun baldintza makroekonomikoetan. Hainbat zenbatespenen arabera, tankera horretako proiektuetan inbertituriko euro bakoitzeko, 4 eurorainoko inbertsio pribatua ere lor daiteke.

Bi proiektu horiei Nafarroarentzat garrantzi estrategikodun iritzi beharko litzaieke. Alabaina, proiektu horien etorkizuna europar funtsen mende utzi da, halatan ziurgabetasun-laino batean geratuz, ez baitaukagu inolako bermerik Europarekiko negoziazioaren zer-nolakoei buruz eta, are gutxiago, finantzaketa emanen zaien proiektuak zein izanen diren jakitekorik. Duten garrantziarengatik, proiektu horiek aurrekontuan sartu beharko ziren, kasuko partida eta haien etorkizuneko bideragarritasuna bermaturik.

Datuak ikaragarriak dira. Garapen Ekonomikoko Departamentuak bere inbertsio-zuzkidurak % 28 murriztu ditu, 2020rako aurreikusitako gastuarekin alderatuta. Eta Landa Garapeneko Departamentuak ere murrizketa bat jasan du bere zenbakietan, alderatzen badira 2020an urriaren 31ra bitarte gastatu denarekin. Halaber, Toki Inbertsioen Plan berririk ere ez da aurkeztu, aurrekontu-proiektua mugatzen baita bakar-bakarrik egun-

go Toki Inbertsioen Plana (2017-2019) bukatzeko beharrezkoak diren zuzkidurak jasotzera.

Protagonismorik handieneko gizarte-politiketako bat enpleguari buruzkoa izan beharko litzateke, lan-merkatuak datozen hilabeteetarako mehatxuka daukan ikuspegi ilunari asmo handiko plan batekin ekitoko. Baina aurrekontuan bigarren mailako zeregina esleitzen zaio.

Begi-bistakoa da gizarte-laguntzak, eta horien barrenean, adibidez, Errenta Bermatua, inoiz baino beharrezkoago gertatzen direla krisi honen efektu eta ondorioen aurrean. Baina hori ez da nahikoa, zeren eta, etorkizunari begira, lagun egitoko eta enpleguaren aldeko neurrien eskutik joan beharko bailukete, egiazki inklusiboak eta jasagarriak izateko. Alabaina, Gobernuak aurkezturiko kontu hauetan ez da behar adinako baliabiderik bideratzen lanbide-orientaziorako eta lagun-egiterako mesedegarri diren enplegu- eta langileria-neurrietara. Horrela, esate baterako Enplegu Sozial babestuak jada aurreko ekitaldian zeukan zenbatekoa jasotzen du; gizarteratze-alorreko

entitateentzako laguntzek, ordea, behera egiten dute.

Aurrekontu hauetako zenbakiek urrun uzten gaituzte beharrezkoa dugun estrategiatik, helburutzat badugu eraginkortasunez erantzutea epe laburreko lehentasun sozial eta ekonomikoei eta bultzada ematea krisitik behar adinako indarrez hazkunde jasagarri baterantz irtenaraziko dugun eraldatze-ereduari. Sektore publikoak jadanik demostratu du modua daukala pandemiak diru-sarrera oro kendu dien pertsonen errenta-mantentze politiken bidez sostengua emateko. Ahalmena du pandemiak berdintasunean izandako efektu kaltegarriak samurtu ez ezik jarduera ekonomikoa arnasberritzeko ere. Hauxe da aurrekontuen helburuei eskatu behar dieguna: berdintasunik eza murriztea efizientzia areagotzearekin batera. Krisiaren kostuak ekitateagatik bana daitezela, baina ahal bezain laster ekonomiak suspertze bizkorra izateko moduko efizientziaz egin dadila hori. Ez dugu ikusten Gobernuak aurkezturiko proiektuak premisa horiei erantzuten dienik.

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

OSOKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2020ko azaroaren 13ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

OSOKO ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko 2021erako Foru

Lege proiektua Espainiako Gobernuaren planen berri izan ondoren iritsi da; izan ere, Espainiako Gobernuak Estatuko Aurrekontu Orokorren proiektuan proposatzen du zergak nabarmen igotzea hainbat tributu-figuratan –hala nola PFEZa, sozietateen gaineko zerga edo ondarearen gaineko zerga–, bai eta zerga berriak sartzea ere: Google eta Tobin tasak edo zerga berdeak izenez ezagutzen direnak.

Zerga horietako batzuk sartzen dira distortsioak zuzentzeko eta errealitate sozial eta ekonomikoko berrietara egokitzeko, eta horrexek ematen die zentzua. Dena den, zerga mota hori defendatzen duten erakundeek –Nazioarteko Diru Funtsak, kasu– argi adierazi dute oraingoa ez dela halakorik sartzeko unea. Jardueraren uzkurdura handi baten erdian gaude, eskariaren eta eskaintza agregatuaren beherakadak eragindakoa, COVID-19aren pandemiaren aurrerapena geldiarazteko hartutako neurrien ondorioz.

Ekonomiak jarduera bultzatzea eta enpleguari eustea sustatzeko pizgarriak behar ditu. Orain zergak igotzeak, Nafarroan eginen dugun bezala,

Espainiako Gobernuak ezarritako tributazio berria gehituko denez edo aseguru-primen kasuan presio fiskala aldatuko denez, uzkurtze-efektu bereziki kaltegarria sortzen du ahultasun ekonomiko eta ziurgabetasun handiko ingurune honetan.

Nahikoa da gure ingurune naturalari erreparatzea, hau da, Europari, COVID-19aren krisiaren aurkako borrokan neurri fiskalak beste norabide batetik doazela egiaztatzeko. Eredu fiskal eta instituzionaletan elkarren artean oso desberdinak diren herrialdeek —esate baterako Alemaniak eta Italiak— zergak nabarmen murriztea edo geroratze berriak egitea erabaki dute azken hilabeteetan, negozio eta enpresa bideragarriei bizirautea ahalbidetzeko eta, horrela, enplegu gehiagori eusteko.

Diru-bilketari begira zerga guztiek duten helburu logikoa bistatik galdu gabe, ez genuke ahaztu behar zerga horiek zein eginkizun betetzen duten pertsonen, etxeen eta enpresek erabakiak hartzeko garaian aurrean duten pizgarri-esparruaren konfigurazioan. Horrela, zerga-sistema bat garatu beharko genuke, ekitatiboa eta eraginkorra izateaz gain, ziurtasun juridikoa sortuko duena eta ekimen pribatuari etorkizunera bideratutako erabakiak —hala nola, aurrezpena eta inbertsio produktiboa— hartzea erraztuko diona; suspertze ekonomikoa eta hazkunde iraunkorreko eredu baterako trantsizioa sustatuko dituen, horrekin zerga-oinarriak eta, ondorioz, denboran zeharreko diru-bilketa handitzea bermatzeko. Horretarako, serio planteatu beharko litzateke ezkutuko ekonomia-aren, zerga-saihestearen eta zerga-ihesaren aurkako borroka.

Gure ustez, 2021erako zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzen dituen Foru Legearen proiektuak ez ditu premisa horiek aintzat hartzen, eta epe laburreko bilketa-kontsiderazioetan murgiltzen da, diru-bilketa eta politika publikoetarako baliabideen eskuragarritasuna oinarritzeko zerga-oinarriak arriskuan jartzearen kontura.

Hala eta guztiz ere, Nafarroak, aurreko legegintzalditik, zerga-arloko desabantaila luza-tzen jarraitzen du, besteak beste, tributazio handiagoa ezartzen baitu; hain zuzen ere, tributazio handiago hori pairatzen dute gure erkidegoan jada existitzen diren enpresek, krisialditik irteteko oxigeno gisa ahalegin handia eginda sor daitezkeen enpresek eta gure erkidegora etor litezkeen baina etortzen ez diren enpresek, beste lurralde mugakide batzuetan edo urrunagoetan baldintza hobeak dituztelako. Zerga-desabantaila horren ondorioz —eta horixe da azterketa honen gauzarik garrantzitsuena—, enplegua sortzearen aldeko apustua egiteko baldintzak ilundu egiten dira gaur eta bihar. Bizi dugun une zail honetan inbertitzeko pizgarririk ez izateak edo enpresek biziraun ahal izateko likideziaren premia hain larria izateak galtzaile nagusi gisa ditu, batetik, denbora honetan beren bizimodua hondamenean ikusi duten herritar guztiak, eta, bestetik, enplegua galdu duten guztiak, gaztetatik hasi eta erretiroa hartzeko adinetik gertu dauden pertsonetarako, lanean berriz hasi eta lanpostu bat eduki nahi dutenak. Azken batean, Nafarroako familiak dira, beste behin ere, Espainiarekin duten zerga-desabantaila murrizteko aukera galdu dutenak, horren ondorioz etorkizun-an pairatu beharko dituzten ondorioekin.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzkoa.**GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak onetsitako irizpena, enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzko Foru Lege proposamenaren gainekoa. Proposamen hori 2020ko ekainaren 9ko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IRIZPENA

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak 2020ko azaroaren 11n, 13an eta 19an egindako bileran onetsia.

**Foru Lege proposamena,
enpresen sustraitzearen aldeko eta
enpresen deslokalizazioaren aurkako
neurriei buruzkoa****ZIOEN AZALPENA**

I

Azken urteotan hainbat dira, deslokalizazioaren fenomenoaren eraginez, gure komunitatea utzi eta atzerrian beren lantokiak kokatu dituzten enpresak. Eskulan-gastuak eta kostuak murriztuz etekinak areagotzeko helburuarekin, urte askoz gure lurraldean egon diren hainbat enpresak beren produkzio osoa edo zati handi bat kanpora bideratu dute.

COVID-19aren krisiarekin, enpresa batzuek beren interes ekonomikoengatik deslokalizazio berriak planteatzeko arriskua jarri da abian.

Deslokalizazio gisa ezagutzen den jardueraren bidez, zerbitzuen eta bitarteko ondasunen enpresek, besteak beste, haiekin mendekotasun-erlaziorik ez duten atzerriko hornitzaileei erosketak egiten dizkiete, eta atzerrian finkatutako sozietate afiliatuei transferentziak bideratzen dizkiete. Kasu gehienetan estatu batetik bestera egiten dira, eta ondasun edo zerbitzuok enpresak berak edo kanpoko zerbitzu-emaileek hornitu ahal dituzte. Kasu gehienetan, garapen urria edo gurea baino garapen txikiagoa duten herrialdeak izaten dira helmuga.

Estatu bateko enpresa batetik beste estatu bateko beste enpresa batera jarduerak eta lanpostuak lekualdatzeko modu bat baino gehiago daude. Alde batetik, akziodunen artean burutzen da; alegia, talde bereko enpresen artean. Beste alde batetik, kontratu bidez burutu ahal da, enpresa nagusi baten eta lehenago jatorrizko herrialdean ekoizten ziren ondasun edo zerbitzu inportatuak hornitzen dituen azpikontratistaren artean.

Gero eta ohikoagoa da erabaki- eta botere-guneak kanpoan kokatzetik hastea. Hainbat interes direla tarteko (ekonomikoak, fiskalak...) botere- eta erabaki-guneak kanpoan kokatzea izaten da deslokalizazio prozesuen lehen urratsa. Denboran luzatzen diren prozesuak izan ohi dira maiz.

Garapen bidean dauden herrialdeetan eskulana gero eta kualifikatuagoa eta ugariagoa izateak eta ekonomia zein komunikazioen mundializazioak areagotu egin dute deslokalizazioaren bideari ekin dioten enpresen kopurua.

Bereziki industrian ematen den egoera hau ekonomiaren mundializazio eta globalizazio prozesuetan txertatuta dago. Prozesu horiek enpresa transnationalei eragiten diete batik bat eta enpresa transnazional horietako gehienak halako ezagarrak dituzten estatuak bilatu ohi dituzte: egitura eta babes sozial mugatua, eremu sozialean gutxi garatutako lan legeriak, soldata baxuagoak eta

ingurumenaren kontserbazioari dagozkion lege arau malguak.

Gero eta nabarmenagoa den fenomeno honek ondorio oso larriak sor ditzake nafar ehundura industrialean: alde batetik, deslokalizazio fenomenoaren bidez zuzenean galdutako enpleguak; bestetik, deslokalizazioaren edo horren mehatxuaren eraginez lan baldintzetan atzerapausoak ematea. Soldatak murriztagoak izatea eta lan baldintzek txarrera egitea dira enpresek deslokalizazioaren mehatxua erabiliz ematen diren egoerak. Horren ondorioz, soldata bat izanik ere pobreziatik atera ezin diren pertsonen kopurua areagotu egin da.

Egoera honek gure ekonomia sarean sortzen dituen ondorioei aurre egiteko bitartekoak jartzera behartuta daude administrazioak. Era berean ezinbestekoa da gure ekonomia sustatzeko politika publiko egokiak diseinatu eta garatzea, Nafarroaren bilakaera sozioekonomikoarekin lotutako politikak, aberastasuna sortu eta banatzen eta bertako biztanleen bizi kalitatea hobetzen lagunduko dutenak.

Politika horien baitan kokatzen dira enpresei bideratutako laguntza publikoak. Konpetentzian, gastuen murrizketan eta ondasunen metaketan oinarritutako merkatuaren aurrean, beste balio batzuetan eraiki behar da enpresak gizartearekin zein Administrazioarekin duen harremana. I+G+B zutabe izanen duen eredu berri batean oinarritutako ekonomia industrial bultzatu behar dute nafar instituzioek, enpresa txiki eta ertainei irtenbideak, aukerak eta laguntzak eskainiz. Ekonomia industrial hori langileen parte-hartzearekin zein lan-kalitatearekin osatuko beharko da. Enplegu egonkorra eta birbana daitekeen aberastasuna sortu behar dira herri honen etorkizuna bermatzeko. Bide hori izanen da lehiakortasunera eta kalitatezko lan- zein bizi-baldintzetara eramanez gaituena.

Gure ekonomian enpresek beste hainbat eragile sozial, ekonomiko eta sindikalekin batera betetzen duten eginkizuna ezinbestekoa dela aitorturik, instituzioek bide hori garatzen lagunduko diete. Aldiz, funtsezkoa da gastuak murrizteko helburu soilarekin eta bideragarritasun ekonomikoari lotutako arrazoien bidez justifikatu gabe beren jarduerak bertan behera utzi eta kanpora eramateko bidea hartzen duten enpresentzako mekanismoak arautzea. Deslokalizazio jarrera horiek lanpostu askoren galera eragin dezakete eta arazo larriak sortu gure herriko ehundura ekonomiko, produktibo eta industrialean.

Enpresen babeserako laguntza publikoak bideratzen direnean, beharrezkoa izanen da neurri horiei buruzko araudiak diruz laguntzen duen jar-

duera egin dadila, emandako laguntzaren xedea bete dadila eta jarduera horrek Nafarroako Foru Komunitatearen garapenerako ekarpen eraginkorra eginen duela berma dadila. Laguntza publikoek kalitatezko enplegu eta lan baldintzak sortzen lagundu behar dute eta ez dute jarduera ekonomikoaren deslokalizazioa erraztu behar.

Problema hau Europa osoan zehar hedatuta dagoenez, Europako erakundeek neurri juridikoak hartu dituzte, Europako Erkidegoak finantzatzen dituen enpresek ez ditzaten beren jarduerak deslokaliza. Mahaigaineratu diren neurri horiek xede dute Europar Batasunak enpresei emandako laguntzak berreskuratzea, baldin laguntza jaso eta zortzi urte igaro aurretik enpresak bere jarduerak deslokalizatzen baditu. Era berean, Europako Parlamentuak eskatu du enpresa horiek Egitura Funtsetatik edo estatu-laguntzetatik kanpo gera daitezela deslokalizaziotik zazpi urte igaro arte.

Europar Batasunak bezala, Nafarroak ere beharrezkotzat jotzen du enpresei arauak ezartzeari, eta, foru lege proposamen honetan, baliabide publikoak jaso ondoren deslokalizazioaren bideari ekiten dioten enpresak (produktzio osoa edo zatirik handiena kanpora eramanez) azkeneko hamar urteetan jasotako laguntza guztiak itzultzera behartuta geratzen dira. Deslokalizazioaren fenomenoari aurre egiteko neurriak hartu izan dira aurretik ere, Nafarroako sare industrial babestu eta indartzeko baliagarriak izan direnak eta ekimen desberdin gehiagoren bidez osatzen joan direnak. Foru lege honen bidez beste urrats bat egin nahi da norabide horretan.

II

Foru lege honek zortzi artikulua ditu, bi kapituluatan banatuak, eta bi xedapen. Lehen kapituluaren foru legearen xedea zehazten da, nafar sektore publikotik laguntzak jasotzen dituzten enpresek balizko deslokalizazioen aurrean izan beharreko arauak zehaztuz. Hurrengo bi artikuluetan foru legearen aplikazio eremu subjektibo eta objektibok zehazten dira. Laugarren artikuluan enpresa bat deslokalizatutzat jotzeko beharrezkoak diren baldintzak zehazten dira. Bigarren kapituluak laguntza publikoaren aurrean Nafarroako Foru Komunitateko enpresek hartu beharreko konpromisoak zehazten ditu. Izan ere, laguntza publikoak jasoko dituzten enpresek deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartu beharko dute. Hurrengo apartatuan Nafarroako Gobernuak deslokalizazio kasuen deklarazioa egiteko prozedura zehazten da. Zazpigarren atalean arautzen da dirulaguntza publikoak jaso ondoren deslokalizazioa egin duen enpresak laguntza horiek itzultzeko duen betebe-

harra. Azken artikuluan, deslokalizazio prozesuen inguruko ezagutza sakontzeko batzorde baten eraketa arautzen da.

Xedapenetan, Nafarroako Gobernuari foru legea interpretatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren jarraibideak bideratzeko ahalmena ematen zaio eta foru lege honen aplikaziorako beharrezkoak diren diru zuzkidurak aurrekontuan sartzeko betebeharra arautzen da. Azkenik, foru legea indarrean sartzeko epe eta baldintzak zehazten dira.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea da zehaztea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik eta Foru Sektore Publiko Institutuzionala osatzen duten entitateetatik laguntzak jasotzen dituzten enpresek balizko deslokalizazio prozesuen aurrean izan beharreko betebeharrak eta mugak.

2. Lege honen bidez, bermatu nahi da enpresen artikuluan honen 1. apartatuan aipatutako entitateetatik jasotzen dituzten dirulaguntzak Nafarroaren garapenari ekarpen ekonomiko eta soziala egiteko izan daitezela, deslokalizazio prozesuei aurre egite aldera.

2. artikulua. Aplikazio-esparru subjektiboa.

1. Foru lege hau enpresaren egoitza zein lantokia Nafarroan izan eta Nafarroako laguntzak jaso dituzten enpresei aplikatuko zaie, hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan eta moduan.

2. Foru lege honen ondorioetarako, enpresatzat hartuko da jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen erakunde oro, edozein dela ere bere forma juridikoa.

3. artikulua. Aplikazio-esparru objektiboa.

Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarengandik eta Foru Sektore Publiko Institutuzionala osatzen duten entitateengandik jasotako laguntzat jotzen dira bai dirulaguntza publikoak bai beste edozein laguntza, edozein dela ere hartzen duen forma juridikoa. Erregelamenduzko garapena egitean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zilegi izanen du foru legearen aplikazio-esparru objektibotik halako dirulaguntzak salbuestea ezen bideratuta baitaude lehiakortasuna edo jakintza-transferentzia hobetzekoak diren I+G+b jarduerak sustatzera.

4. artikulua. (Kenduta).

II. KAPITULUA

Laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresen jabeen erantzukizunak

5. artikulua. Enpresaren konpromisoa.

Beharrezkoa izanen da enpresa-deslokalizazioziorik ez egiteko konpromisoa jaso dadila 3. artikulua definitzen dituen dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen gutxieneko eta nahitaezko edukiaren osagai gisa, bai eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalako erakundeek laguntza-emate eragiketarako formalizatzeko negozio juridikoen gutxieneko eta nahitaezko edukiaren osagai gisa ere.

6. artikulua. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa.

1. Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez egiten da, garapen ekonomiko eta enpresarialaren arloan eskumena duen departamentuak proposatuta.

2. Deslokalizazio deklarazioa foru lege honetako 2. artikuluan aipatutako inguruabarrak gertatu ondoko lau urteen epean abiarazi ahalko da.

3. Artikulu honetako 1. apartatuan adierazitako departamentu eskudunaren txosten baten bidez hasiko da prozedura. Txostenean justifikatuko da bete egiten direla 2. artikuluan ezarritako inguruabarrak. Lehen instantzian eginiko txostena interesdunari jakinaraziko zaio, eta horrek hogeita hamar eguneko epea izanen du txostenak dioenaren aurrean bere alegazioak adierazi eta bere eskubideen defentsa egiteko.

5. Epe hori amaitzen denean, eskudun den departamentuaren titularrak proposamena aurkeztuko dio Gobernuari, kasua bada entitatearen enpresa-deslokalizazioko deklarazioa egiteko.

6. Prozedurari amaiera emateko, Nafarroako Gobernuak bi aukera izanen ditu, jasotako txosten eta informazioa aztertu ondoren:

a) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia hartzea.

b) Enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko erabakia bertan behera uztea.

Bi kasuetan, ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio.

7. Nafarroako Gobernuak amaieran emandako ebazpenean zehaztuko da enpresaren deslokalizazioa zein egunetan gertaturikotzat hartzen den.

Data hori izanen da foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako kontuan hartu beharko dena.

7. artikulua. Jasotako laguntza itzultzea.

1. Enpresaren deslokalizazioa deklaratu gero, enpresak itzuli egin beharko ditu aurreko zortzi urteetan jasotako dirulaguntzak, kopuru bakoitza jaso zuenetik deklarazio horren egunera arte sortutako berandutza-korrituekin batera.

2. Deklarazio horrek, halaber, itzuli beharreko dirulaguntzen zenbatekoaren % 20ko errenergia ordaintzeko betebeharra ekarriko dio enpresari.

3. Dirulaguntzen itzulketa izapidetzeko, dirulaguntzei buruzko araudi orokorrak xedatutakoa aplikatuko da.

4. Nafarroako Foru Komunitateko eta Foru Sektore Publiko Institutuzionala osatzen duten entitateetako administrazioak emandakoak izanik dirulaguntza-izaeraz bestelakoa duten laguntzei dagokienez, Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatuko du itzulketa kuantifikatzeko prozedura.

8. artikulua. Enpresa-deslokalizazioaren fenomenoari buruzko ezagutza.

Nafarroako Gobernuak, enpresa-deslokalizazioeko prozesuei buruzko ezagutza hobetearren, ikerlerro egonkor bat antolatuko du gainerako instituzioekin elkarlanean, aztertze aldera zer aurre-
rapauso eman diren eta zein den egungo egoera

globalizazioak toki- eta eskualde-mailetako enpresa-ehunduran dituen efektuei eta Europako eta Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-deslokalizazioeko prozesuei buruzko ezagutza teorikoan eta praktikoan.

Xedapen gehigarri bakarra.

Nafarroako Gobernuak foru lege honen garapen eta aplikaziorako behar diren erregelamenduzko xedapenak onetsiko ditu sei hilabeteko epean.

Xedapen iragankor bakarra. Foru lege honek indarra hartu aurretik emandako dirulaguntzen araubide iragankorra.

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie bera indarrean sartu aurretik emandako dirulaguntzei, baldin eta deslokalizazioa, 4. artikuluan zehaztutakoaren arabera, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera gertatzen bada eta dirulaguntza emanez geroztik zortzi urte igaro ez badira.

Foru lege honen 7.2. artikuluan ezarritako errenergia foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera ematen diren dirulaguntzei bakarrik aplikatuko zaie.

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebaluazio bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean norberak hautemandako osasunaren narriadurari eta pandemia-egoeraren ondorioz ondoez psikologikoaren eta emozionalaren sintomak agertzeari buruz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebaluazio bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean norberak hautemandako osasunaren narriadurari eta pandemia-egoeraren ondorioz ondoez psikologikoaren eta emozionalaren sintomak agertzeari buruz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ebaluazio bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean norberak hautemandako osasunaren narriadurari eta pandemia-egoeraren ondorioz ondoez psikologikoaren eta emozionalaren sintomak agertzeari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du esku-hartze komunitarioko programak abiaraz ditzan, herritarren osasun mentala eta erresilientzia hobetze aldera, pandemiaren bigarren kutsatze-kolpeari begira”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunitate ekintza prebentiboaren lana sustatu eta aldeztu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunitate ekintza prebentiboaren lana sustatu eta aldeztu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du komunitate ekintza pre-

bentiboaren lana sustatu eta aldeztu dezan, errazte aldera beste zona geografiko batzuetara heda dadin.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du komunitate-prebentzioko taldeekin eta arloko adituekin batera lan egin dezan, babes komunitariorako proposamen berriak prestatze aldera, COVID-19aren krisiak sortutako egoerei aurre eginen dietenak”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeinu-hizkuntzak aitor ditzan eta haien erabilera berma dezan oinarritzko eskubide gisa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zeinu-hizkuntzak aitor ditzan eta haien erabilera berma dezan oinarritzko eskubide gisa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zeinu-hizkuntzak aitor ditzan eta haien erabilera berma dezan oinarritzko eskubide gisa, irispidea bermatzen duena hezkuntzarako, zerbitzuetarako, bizitza ekonomiko eta kulturalerako, hedabideetarako eta informazio-teknologia berrietarako. Halaber, aitor dezan beharrezkoa dela gorren garapen pertsonal egokirako eta parte-hartze sozialerako”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren sektoreko jarduerak susta ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren sektoreko jarduerak susta ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Kulturaren sektoreko jarduerak susta ditzan, ahalbidetuko dutenak kalitatezko proiektuak sortzea eta garatzea eta, halaber, egonkortzea enplegua eta ekintzailletza Nafarroako marka sozial eta ekonomiko gisa.

- Kultura Zuzendaritza Nagusiaren programa artistiko berekiak susta ditzan, Nafarroako kulturaren sektorea laguntzeko eta babesteko tresna gisa.

- Tokiko administrazioak babestu ditzan lurraldearen sustapen eta dinamizazio soziokulturalen duten eginkizunean.

- Kulturaren atari digitala bultzatzen jarrai dezan, Nafarroako herritar oro kulturara iristeko tresna gisa.

- Gazte txarteletik inklusioa berma dezan, kulturarako irispidea sustatuz Nafarroako lurraldearen eta kulturaren aniztasuna kontuan hartuta.

- Gazteen sormena sustatzen jarrai dezan, industria sortzaile eta digitalen arloan.

- Arte gaztearen topaketen aldeko apustuarekin jarrai dezan, Nafarroako gazteek bilkura egiteko eta diziplina artistikoetan bateratze lana egiteko tresna gisa”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diseina ditzan gizon helduei zuzendutako sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak, indarkeria matxistei buruzkoak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diseina ditzan gizon helduei zuzendutako sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak, indarkeria matxistei buruzkoak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, diseina daitezen indarkeria matxistei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak, gizon helduei zuzenduak, tresnak izan ditzaten ezbaian jartzeko indarkeriazko jokaerak, fisikoak zein psikologikoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, emakume horiek arta-

tzen dituzten profesionalak prestakuntza berariazkoa eta berezitua izan dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliabide gehiago eman diezazkien emakumeak ahalduzera bideratutako programei, 50 urtetik gorako emakumeendako estrategia berariazko bat diseinatzuz, prozesu hori baita behar dena kontzientzia hartzeko, erabakia hartzeko indarkeriaren egoeratik atzeratze aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak bere esker ona adierazten die kolektibo, erakunde, elkarte eta sare komunitario eta elkartasunezkoiei, laguntza emozional, ekonomiko eta soziala eskaini dietelako emakumei eta neskatoei, bereziki 50 urtetik gorako emakumei, azterlanak jasotzen duen moduan".

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes-material egoki eta kalitatezkoa helaraz diezaiei pertsona kalteberei.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko azaroaren 12an egindako bileran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes-material egoki eta kalitatezkoa helaraz diezaiei pertsona kalteberei". Mozioa Cristina Ibarrola Guillén

andreak aurkeztu zuen eta 2020ko azaroaren 10eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Ogasuneko bi kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile lanpostu betetzeko bi pertsona kontratatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Ogasuneko bi kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile lanpostu betetzeko bi pertsona kontratatzeari buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 11ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique Erro idatziz erantzuteko galdera egin du (10-20/PES-00187) —2020ko irailaren 7ko 4571 irteera-zenbakia du Parlamentuan—, informazioa nahi baitu Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ogasuneko bi kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile lanpostu betetzeko bi pertsona kontratatzeari buruz. Hauxe da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Jarraian, kronologikoki azalduko dira eskatutako galderari erantzuteko garrantzitsuak diren gertakariak.

Martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen bidez, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak onetsi ziren. Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoaren barruan, 103. eta 104. zuzenketen bidez onetsitako partida hauek daude, guztira 100.000 euroko zenbatekoa dutenak:

150000 17000 1211 923400 (E) Lanpostu hutsak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak

150000 17000 1600 923400 (E) Gizarte Segurantza

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren martxoaren 12ko 47/2020 Foru Aginduaren bidez, baimena ematen da COVID-19a dela-eta neurri batzuk hartzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen menpeko lantokietan.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren martxoaren 15eko 48/2020 Foru Aginduaren bidez, prebentzio neurriak hartzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako lantokietan eta haren erakunde autonomoetakoetan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoa dela-eta.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren martxoaren 30eko 54/2020 Foru Aginduaren bidez, bertan behera uzten da lantokietako jarduera presentziala Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzat, funtsezko zerbitzu publikoentzat izan ezik, koronabirusaren (COVID-19) bilakaera epidemiologikoaren ondorioz.

Aldi horretan ez da aldi baterako kontrataziorik egin, funtsezko zerbitzuak izan ezik.

Maiatzaren 14ko 59/2020 Foru Agindua onetsi arte ez zitzairen berrekin aldi baterako kontratazioei. Foru agindu horretan arautzen da nola itzuliko diren gutxinaka Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoaren zerbitzuko langile publikoak aurrez aurre lan egitera lantokietan, Normaltasun Berrirako trantsizio planaren esparruan.

2020ko ekainaren 15ean, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari txostena bidali zitzaion, ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile izateko 2 lanpostu sortzeko eskatuz, eta lanpostu horiek aldi baterako kontratatzeko eskatu zen.

Nafarroako Gobernuaren 2020ko uztailaren 15eko Erabakiaren bidez, baimena ematen zaio Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuari Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoan ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile izateko bi plaza sortzeko, bai eta lanpostu horiek berehala betetzeko ere.

Abuztuaren 26ko 62/2020 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen da. Bertan, ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaile izateko bi lanpostu

huts sortzen dira, B mailakoak, plantilla organikoan 11012 eta 11013 zenbakiekin identifikatuak.

Foru dekretu hori 2020ko irailaren 10eko 204. NAO-n argitaratu zen, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarri zen indarrean.

2020ko irailaren 16an, 11013 zenbakiko lanpostua lortu duen pertsonak hasi zuen kontratua.

2020ko irailaren 23an, 11012 zenbakiko lanpostura sartu zen plaza horretarako aldi baterako kontratatutako pertsona.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betetzeko.

Iruñean, 2020ko urriaren 2an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzak emateko 2020ko deialdiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzak emateko 2020ko deialdiari buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 11ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (PES-00188). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren uztailaren 11ko 792/2019 Ebazpenaren bidez onetsi ziren abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzak emateko 2020ko deialdia eta oinarri arautzaileak (2014-2020 aldirako "Abeltzaintzako toki azpiegiturako inbertsioak" Landa Garapene-

rako Programako 04.03.04 operazioa). Eskerak aurkezteko epea 2019ko urriaren 15ean hasi zen, eta 2019ko azaroaren 29an amaitu.

77 eskaera aurkeztu ziren, eta zuzenketak egin ondoren, inbertsio lagungarriaren zenbatekoak eta toki-erakunde bakoitzari dagokion laguntza kalkulatu ziren. Fase hori amaitu ondoren, zeina ez baitzen urtarrilera arte hasi, aurreko deialdiko laguntzak ordaintzeko espedienteak izapidetu behar izan baitziren, ez zen tarterik egon; izan ere, martxoaren 14an administrazio-epe guztiak eten ziren 463/2020 Errege Dekretuarekin, zeinaren bidez COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu baitzen. Alarma-egoera 2020ko ekainaren 21era arte luzatu zen.

Aldi horretan, toki-erakunde askok adierazi zuten ezinezkoa zela oinarri arautzaileetan inbertsioak gauzatzeko eta, ondoren, haiek justifikatzeko ezarritako epeak betetzea (2020ko irailaren 30a). Ezintasun hori ez zen gertatu soilik alarma-egoera deklaratu zuen Errege Dekretuak ezarritako etete-epeagatik, baizik eta onuradunek lizitazioak egiteko eta adjudikazio-hartzaile gertatzen diren kontratek obrak gauzatzeko zituzten zailtasun handiagoengatik ere, hain zuzen ere agertoki horretan prebentzio-neurri gehigarriak ezarri

behar baitziren eta horniduretan atzerapenak gerta zitezkeelako.

Hori dela eta, inbertsioak behar bezala gauzatu ahal izateko, deialdiaren 19. oinarrian hasieran ezarritako epeak luzatu egin behar izan dira, hala-ko moduz non inbertsioa gauzatzeko epe berria 2021eko abuztuaren 31ra arte luzatu baita, eta ordainketa-eskaera eta justifikazio-agiriak aurkezteko epea, berriz, 2021eko irailaren 15era arte. Epe hori beharrezkoa da inbertsioak udan egin ahal izateko, toki-erakunde askok adierazten duten bezala; izan ere, inbertsio asko irispide zail-eko eta urrutiko lurretan egiten dira, eta horri lurra lehor egoteko beharra gehitu behar zaio; hori dela eta, 2021eko udaberrian eta udan egingen dira jarduketak.

Jarduketa horiek egiteko, beharrezkoa izan da urte anitzeko gastuaren nahitaezko baimena izapidetzea 2021ean, eta baliozkotze hori 2020ko abuztuaren 21ean onetsi da.

Hori dela eta, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren irailaren 3ko 794/2020 Ebazpenaren bidez, onartu egiten da tokiko abeltzaintza-azpiegiturak sortu eta hobetzeko laguntzak ematea edo ukatzea, 2020ko ekitaldirako deialdiari dagokionez, eta inbertsioa gauzatzeko epeak 2021eko abuztuaren 31ra arte (egun hori barne), eta ordainketa-eskaera eta justifikazio-dokumentazioa aurkezteko epea, berriz, 2021eko irailaren 15era arte (egun hori barne).

Gastuak ordainduko dira 2021eko gastuen aurrekontuan horretarako gaitzen den —eta “Abeltzaintzako toki azpiegituretako inbertsioak. Landa

Garapenerako Programa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza 2014-2020” izeneko 710006-71500-7609-414300 partidaren baliokidea den— 2020ko gastuen aurrekontuko partida baten kargura. Beraz, partidari 2020an aurreikusitako gastua ez da gauzatuko.

Erabaki horrek ez du laguntzen murrizketarik ekarriko; izan ere, laguntzak 2014-2020 aldirako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren “Abeltzaintzako toki azpiegituretako inbertsioak” izeneko 04.03.04 operazioa dira, 2020ko uztailaren 15ean gauzatutako gastua aurreikusitako guztizkoaren % 78 da, eta hura osorik garatu eta gauzatzea aurreikusten da, 2023an amaitu arte, programan aurreikusitako 3.150.000 euroko gastu publikoa agortuz.

Azkenik, 2021eko deialdiari dagokionez, datozen hilabeteetan izapidetuko da, eta horren gastuak 2022ko gastuen aurrekontuan horretarako gaitzen den partidaren kargura ordainduko dira. Inbertsioak amaitzeko eta ordainketa-eskaera eta justifikazio-dokumentazioa aurkezteko epe gisa 2022ko uda amaiera ezarriko da. Behar besteko denborarekin egingen da guztia, laguntzak 2021eko uda baino lehen eman ahal izateko. Horrela, toki-erakunderen batek inbertsioak 2021eko udan hasi nahi baditu, aukera izanen du horretarako, nahiz eta horrek 2020ko deialdiko inbertsioak aldi berean egitea ekar dezakeen.

Iruñean, 2020ko urriaren 6an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kon-
tseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, irakaskuntzako kontingentzia plana aldatzea justifikatzen duten irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, irakaskuntzako kontingentzia plana aldatzea justifikatzen duten irizpideei buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 18ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera egin du irakaskuntzako kontingentzia plana aldatzea justifikatzen duten irizpideei buruz (10-20/PES-00190). Hona hemen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuarekin elkarlanean 2020-21 ikasturterako egindako NUPen Kontingentzia Planean hiru agertoki desberdin ezarri ziren:

- Eskola presentzial egokituak ematea.
- Konfinamendu partziala.
- Erabateko konfinamendua.

Irailaren 1eko 14/2020 Foru Legeak indarra hartu ondoren (irailaren 7ko NAOen argitaratu zen), Unibertsitateko zuzendari nagusia, joan den irailaren 10ean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko

Irakaskuntzako errektoreorde Inmaculada Farranekin bildu zen.

Bilera horretan, gertatzen diren egoera zehazten arabera agertokian gerta daitezkeen aldaketak aztertu ziren. NUPeko zentroetako jardueraniztasuna dela eta, erabaki zen ikastetxe bakoitzak ezarriko zuela konfinatutako ikasle-kopuruaren adierazlea, konfinamendu partzialera egokitutako presentzialtasun-egoeratik igarotzeko erreferentzia gisa balioko zuena, eta unibertsitatea arduratuko litzateke irakaskuntza modalitate erdipresentzialera edo online modalitatara egokitzeaz, berrogeialdiak irakasle-talde bati ala osoari eragitearen arabera. Horretarako, emanaldi sinkronoko ekipoak eta bideokonferentziako tresna erabili ahal izanzen dira. Berrogeialdian dagoe-na irakaslea baldin bada, online emanen da konfinamenduak irauten duen bitartean, eta departamentuak aukera emanen die ikasleei esleitutako gela beren gailu eramangarrietatik erabiltzeko. Nolanahi ere, ikastetxeek ezarritako irakasgaien ordutegiak errespetatuko dira.

Bilera berean, irakasle edo ikasle-talderen bat konfinatuta egonez gero jarraitu beharreko jarraibideak zehazten dituen dokumentu egin zen, hain zuzen erantsia doana.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko urriaren 2an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman).

Galdera, Radar Covid aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Radar Covid aplikazioari buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 18ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko kide Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Radar Covid aplikazioari buruz (10-20/PES-00194). Hona Nafarroako Gobernu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horri buruz jakinarazten diona:

1.- Gaixotasuna kutsatutako kasuetan miaketatutako errazte aldera Gobernu zentralak taxututako Radar Covid aplikazioak ez du aukerarik ematen migratzaileen hizkuntzetan erabili ahal izan dadin. Zer iritzi diozu horri?

Digitalizazioko eta Adimen Artifizialeko Estatu Idazkaritzarekin (SEDIA) elkarlanean aritu gara teknikoki apirilaren 14tik, eta app segurua ateratzea lehenetsi dugu, ahalik eta lasterren abiarazteko, nahiz eta aipatzen dituzun funtzionalitateak falta izan. Hala ere, dagoeneko bidali zaio SEDIA-ri Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak egindako proposamen bat, 3. puntuan zehazten diren hizkuntzak sartzeko, Ministerioak berak baloratu beharko dituenak.

2.- Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen ere ezin dute aplikazioa modu autonomoan baliatu. Zer iritzi diozu horri?

Bi gai horiek berebiziko garrantzia dute. SEDIAk jakinarazi digunez, irailaren 15eko Radar-COVID bertsioak hobekuntza nabarmenak ditu irisgarritasunari dagokionez, VoiceOver bezalako pantaila-irakurgailuekin hobeto integratuta, eta urriko lehen aste honetarako gai txikiak konponduko dituen hurrengo bertsio bat egotea aurreikusten dute.

3.- Nafarroako Gobernuak zer zuzemen egin du orain arte edo egin nahi du ahalbidetze aldera tresna hori une honetan eskuragarri dauden hizkuntzetan (gaztelania, ingelesa eta katalana) erabili ahal izan dezaten Nafarroan bizi diren migratzaileek eta ikusmen-desgaitasunen bat duten pertsonen?

Ikusmen-urritasuna duten pertsonentzat erabilgarri egoteari dagokionez, aipatu dugun bezala, irailaren 15eko Radar-COVID bertsioak hobekuntza nabarmenak ditu irisgarritasunari dagokionez, eta urriko lehen aste honetan gai txikiak konponduko dituen hurrengo bertsio bat aurreikusten da.

Migratzaileentzako hizkuntzei dagokionez, Ministerioari honako hizkuntza hauek sartzeko eskaera helarazi zaio, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak zehaztutakoaren arabera, Nafarroan bizi diren migratzaileen beharrak direla eta:

- Arabiarra: kalkuluen arabera, 20.000 pertsona inguru arabierazko herrialdeetan jaio dira eta gaur egun Nafarroan bizi dira.

- Bulgaria: talde horrek 5.400 pertsona baino gehiago ditu Nafarroan, eta haien ama hizkuntzak ez du latinezko alfabetoa erabiltzen.

- Errusiera: Errusian jaiotako pertsona (800 inguru), baina baita Ukrainan (1.700) eta Moldavian (1.300) jaiotakoak ere hartzen ditu.

- Errumaniera: Nafarroan bizi diren 6.900 pertsona inguru jaio dira Errumanian.

- Portugesa: Brasilen eta Portugalen jaiotakoak 5.800 dira.

- Frantsesa: egokitzen jotzen da frantsesa nazioarteko hizkuntza egoki gisa sartzeko migratzaileentzat, bigarren hizkuntza baita arabiera hitz egiten duten herrialde gehienetan eta Saharaz hegoaldeko herrialdeetan.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, “Delta 50” deitutako eremuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Delta 50” deitutako eremuari buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 18ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak PES-00195 idatzizko galdera egin du “Delta 50” deitutako eremuari buruz. Hona hemen horri buruz informatu beharrekoa

Egia al da badela Tafallatik Bardearaino doan “Delta 50” eremu hori, zeinak mugatu egiten baitu aire-ibilgailu oro bertatik hegaldatzea?

Azken bost urteotan, suteak itzaltzeko aire-baliabideei, helikoptero medikalizatuari edo Nafarroako Gobernuaren mendeko bestelako emergentzia-baliabideei zenbat aldiz ukatu zaie eremu hori igarotzeko baimena?

Abiazio Zibilak edo Noaingo aireportuko kontrol-dorreak zer arrazoi eman dute aire-baliabideei baimena ukatzeko?


Departamentuak jakin al daki inoiz, eremua igaro eta emergentzia bati erantzutera azkarrago iristeko baimenik ezagatik, emergentzia bat oke-rragotu ote den?

Estatuek beren subiranotasuna eta jurisdikzioa baliatzen duten aire-espazioa Estatuaren eskumena da. Aireontziek aire-espazioa erabiltzeko, Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren esku-hartze administratiboa behar da. Horri dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 149.1.20 artikulua jasotzen du Estatuaren esku-men eskusiboak direla “interes orokorreko aire-portuak; aire-espazioaren kontrola, aire-zirkulazioa eta -garraioa, meteorologia-zerbitzua eta aireontzien matrikulazioa”.

Irailaren 8an, EC-3 (helikopteroa) eskatu zen LED-50en barruan dagoen Rada udalerrian basosute bat itzaltzen laguntzeko. Eremu honen ezau-garriak AIP.ENR.5.1-17 izeneko eskuliburuan jasota daude, aeronautikako oinarritzko informazioarako eskuliburuan:

https://ais.enaire.es/AIP/AIPS/AMDT_323_2020_AIRAC_16_2019/AIP/aip/enr/enr5/LE_ENR_5_1_en.pdf)

Eremua astelehenetik ostiralera dago aktibo, 08:00etatik 15:00etara (UTC), eta honako kokapen geografiko hau du: 42° 02' 00" N 001° 22' 002W | 42° 11' 00" N 001° 10' 00"W | 42° 31' 30"N 001° 39' 00"W | 42° 20' 00" N 001° 48' 00"W



Eremuaren barruan jarduerarik ez dagoenean, hegaldia egiteko baimena ematen da. Jarduera dagoen aldietan soilik gerta daiteke estamentuekiko koordinazioaren berezko atzerapen txiki bat, lurraldearen gaineko hegaldia adierazteko edo, bestela, desbideratzea kudeatzeko.

Kasu honetan, operatiboak beharrezko operazio-estandar guztiak bete zituen. Hala, Iruñeko Kontrol Dorreari une horretan eremu horretan izandako jarduerari buruzko informazioa eskatu zitzaion. Larrialdiko misioaren izaera jakinarazi ondoren, Iruñeko aire-zirkulazioko zerbitzuek, Zaragoza APP-rekin (aire-trafikoa eta LED-50en jarduera koordinatzeaz arduratzen den bulegoa) sartzeko baimena kudeatzeari ekin zitzaion. Iraupen tarte honetan, helikopteroa Tafalla inguruan orbitatu zuen, eta track analisiaren arabera, iraupena ez zen 5 minututik gorakoa izan. Aldi hori eten egin zen SOS Nafarroak eskifaiari jakinarazi

zitionean dispositiboaren beharrik ez zegoela, eta bertaratu ziren suhiltzaileen lurreko operatiboak baieztatu egin zuen hori. Beraz, helikopteroa Miluzeko basera itzuli zen.

Barne Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuak gertakari horren berri baino ez du, eta ez zuen inolako ondorioz izan. Era berean, ez dago datu-baserik Nafarroako Gobernuak helikopteroek eremu horietan egin dituzten misioetan izandako gertaerak zenbatzen dituenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía